

PRENTSA OHARRA: 2023.06.02

Aukeratuak Kimuak 2023 katalogoa osatuko duten zazpi film laburrak

- Katalogo berriak animazioa eta fikzioa jasotzen ditu
- Euskara, frantsesa, gaztelania, hindia eta bengaliera erabiltzen dute hautatutako lanek. Zazpi laburretatik hiru emakumezkoek zuzendu eta ekoiztutakoak dira

Kimuak programaren 26. edizioaren deialdira aurkeztutako **60 proposamenak** aztertu eta gero, zazpi film labur hautatu ditu epaimahaiak Kimuak 2023 katalogoa osatzeko: 'La mujer ilustrada' (Isabel Herguera), 'Sorbeltza' (Iban del Campo), 'Prioridades' (Tamara Lucarini Cortés), 'El aprendiz' (Raúl Campos), 'El rey de la semana' (David Pérez Sañudo), 'Deadly Draw (Sorteo Mortal)' (Nitya Lopez Saitua) eta 'Ximinoa' (Itziar Leemans).

Etxepare Euskal Institutuak eta **Zineuskadik** sustatutako programak euskal film laburren sustapena eta zabalkundea du xede. Urtero bezala, euskal film laburren hautaketa hau nazioarteko zinema jaialdi zein ikus-entzunezko ekimen garrantzitsuenetara bidaliko dira gaurtik aurrera.

Aurtengo batzordea honako kideek osatu dute: **Simon Blondeau** – Baionako Cinéma L 'Atalanteko zuzendari laguntzailea eta kultur bitartekaria, Gabarra Filmseko euskal zinema banaketako arduraduna eta Rencontres sur les Docks jaialdiaren antolatzailea –; **Ana Herrera** – Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiko ikus-entzunezko proiektu estrategikoen eta proiektu digitalen ataleko burua –; **Txaro Landa** – Bilboko Cineclub FAS-en zuzendaria–; **Jaime Manrique** – Bogotá-Bogoshorts Film Laburren Jaialdiaren eta Black Velvet Laborategien sortzaile eta zuzendaria –; **Alberto Valverde** – Bartzelonako D'A Film

Lab-eko koordinatzailea eta Edinburgoko CinemaAttic plataformako programatzailea –.

Kimuak 2023 katalogoak animazioa eta fikzioa jasotzen ditu. Hizkuntzei dagokienez, filmetako bat euskara hutsean egin da, beste bat euskaraz eta frantsesez, gainontzekoak gaztelaniaz egin dira eta horietako bik hindia eta bengaliera ere erabiltzen dute. Aurtengoan katalogoko zazpi lanetatik hiru emakumeek zuzendu eta ekoiztutakoak dira.

Honako hauek dira hautatutako zazpi film laburren inguruko xehetasunak:

- ‘La mujer ilustrada’ (Isabel Herguera’).
- ‘Sorbeltza’ (Iban del Campo).
- ‘Prioridades’ (Tamara Lucarini Cortés).
- ‘El aprendiz’ (Raúl Campos).
- ‘El rey de la semana’ (David Pérez Sañudo).
- ‘Deadly Draw (Sorteo mortal)’ (Nitya Lopez Saitua).
- ‘Ximinoa’ (Itziar Leemans).

LA MUJER ILUSTRADA

Ahmedabaden (India), Isabelek animazio tailer bat ematen du Mehndi izeneko aldi baterako tatuajeak egiten dituen artista talde batekin. Haien ametsen inguruan hitz egiten dute: Ramiak hegan egin nahi du, Saadiyak emakumez osatutako parlamentu batekin egiten du amets, Shubhashreek Suitzara bidaiatu nahi du, eta Samirak raparen bidez adierazten du bere independentzia. Zuzendariak gain, Sudhanya Dasgupta, Priyanka Shaw, Shashi Shaw eta Abonti Mukherjeek ere haien ahotsak jartzen dituzte filmean.

Animazio honetan, zuzendari donostiarrak (1961) normalean inork galdetzen ez dien pertsonen nahiak azaldu nahi ditu, 'Bajo la almohada' (Kimuak 2012) filmean egin zuen bezala. Azken lan honekin ez ezik, Kimuak katalogoaren aurreko edizioetan ere parte hartu du, Goya sarietarako izendatuta dagoen 'La gallina ciega' (2005) eta 'Àmàr' (2010) lanekin, hain zuzen ere.

Isabel Herguera UPV/EHUn lizentziatu zen Bilbon, Kunstakademie Düsseldorf-en jarraitu zituen ikasketak, eta Calarts LA-n master bat egin zuen. Lleidako Animac jaialdia zuzendu zuen 2003 eta 2012 artean, eta Donostiako Artelekuko Mugimenduzko Irudi Laborategia koordinatu zuen 2005 eta 2014 artean. Espainiako animazio independentearen emakume aitzindarietako bat da. Bere filmak animazio jaialdi nagusietan erakutsi dira, eta bere obra artistikoa hainbat museo eta erakundetan erakutsi da. Gaur egun, 'El sueño de la sultana' animaziozko bere lehen film luzea amaitzen ari da.

SORBELTZA

Belaontzi bat hiru pertsona barruan dituela itsasoratzen da. Bi emakume eta gizon bat, triangelu bitxi bezain misterioitsu bat osatzen dute. Itsas zabaleko bainuen, gaueko elkarrizketen eta tentsio sexualen artean, desorekatua dagoen unibertso batean murgilduko gara. Iban del Camporen (Arrasate, 1971) film berriak insomnio sukartsu batez eta askatasunaren beharraz hitz egiten du. Erika Olaizola, Joseba Apaolaza, Miren Gaztañaga eta Heren de Lucas dira aktoreak.

Lan hau Iban del Camporen laugarrena izango da Kimuak katalogoan parte hartzen duena. 2009an 'Dirty Martini' dokumentala, 2018an 'Espedizio handia' zientzia-fikziozko lana, eta 2020an Silvia Reyerekin batera zuzendutako 'Interior Taxi Noche' egon dira aurretik katalogoan.

Arrasatearrak Erasmus beka bati esker erabaki zuen zinema egin nahi zuela Parisen. Bartzelonan sormenezko dokumentalari buruzko master bat egin ondoren Donostiara bueltatu eta Limbus Filmak ekoiztetxea abian jarri zuen 2008an. Aldi berean, Mondragon Unibertsitatean ikus-entzunezko komunikazioko eskolak

ematen ditu eta Huhezinema film laburren jaialdia sortu zuen 2008an eta honen koordinatzailea da orduz geroztik. Bere lehen film luzea, 'Glittering Misfits' (2019), Donostiako Zinemaldian estreinatu zen, eta aipamen berezia jaso zuen bertan.

PRIORIDADES

Anek eta Andreak sexu harremanak dituzte elkarrekin, eta egarri dira. Nahiz eta kanpoan bizitzak aurrera egiten jarraitzen duen, denbora gelditu nahi dut, azkenean elkarrekin baitaude. Elkar musukatu eta larrutan egiten dute beren energiaren mugaraino, kanpoko zaintzak haiek salbatzera etorriko den arte.

Tamara Lucarini Cortésekin (Basauri, 1987) Ainhoa Artetxe eta Sara Nieto aktoreak zuzendu ditu bere hirugarren film labur honetan. Katz Estudiok eta Sayaka Produccionek ekoitzi dute filma. Mendi Film Bizkaia bekaren bitartez, 'No es coma' (2018) eta 'Txango' (2022) film laburrak egin ditu aurretik. 2019an, Noka mentorien programan parte hartu zuen, gaur egun garatzen ari den 'El peso' dokumental luzearekin. Gaur egun, 'El jabalí arrúa' filmaren gidoian lanean ari da, fikziozko bere lehen film luzea izango dena.

'Prioridades' Aukera film laburren mentoretza programan parte hartu zuen eta lanak Aukera (H)emen saria jaso zuen, ZINEBiren testuinguruan egindako jardunaldi profesionaletan.

EL APRENDIZ

Raúl Campos Martín (Santurtzi, 1992) zinegileak sinatu du thriller sozial hau, Bilboko Basque Films ekoiztetxearekin batera.

Europara iritsi berri den gazte batek mugikorren konpontzaile gisa hasiko du bere karrera, eta gogor lan egingo du etorkizunak ekarriko diona amesten duen bitartean. Hala ere, bezero baten telefonoan aurkituko duen zerbait errealitate-kolpe bat izango da, munduari buruz duen ikuspegia birplanteatuko duena.

Raúl Campos Arteverse publizitate-agentziaren sortzaileetako bat da; 2012an sortu zuen, ikus-entzunezko komunikazioko ikasketak egiten ari zela. 2015etik, fikziozko film luze, dokumental eta publizitate-piezen produkzio eta postprodukzio prozesuko hainbat alorretan lan egin du. Skype edo Volkswagen bezalako nazioarteko konpainien publizitate piezen ekoizpenaren koordinatzailea izan da Euskadin, baita CNN katearen 'Anthony Bourdain: Parts Unknown' programan ere. Film luzeen postprodukzioan ere lan egin du, hala nola 'Psiconautas: Los niños olvidados' (Alberto Vázquez eta Pedro Rivero, 2015), 'El hoyo' (Galder Gaztelu-Urrutia, 2019), 'Pos Eso' (Samuel Ortí Martí, 2015), 'Pelota II' (Jørgen Leth eta Olatz González Abrisketa, 2016) eta 'Contigo no, bicho' (Álvaro Alonso eta Miguel Jiménez, 2018).

'El aprendiz' bere laugarren film laburra da. Kunal Ravi, Raju Jagat, Aitor Borobia eta Graciela Doniz dira protagonistak eta gaztelaniaz eta hindiz grabatuta dago.

EL REY DE LA SEMANA

Fikzio hau Kimuak katalogoa osatzen duen David Pérez Sañudoren (Bilbo, 1987) bigarren laburra da. 2017an 'Aprieta pero raramente ahoga' filmak Kimuak katalogoaren hautatutako lanetako bat izan zen. Iraupen laburreko beste film batzuk zuzendu ditu, hala nola, 'Un coche cualquiera' (2019), 'La colcha y la madre' (2021) edo 'Au Pair' (2021), eta sari ugari lortu ditu Clermont-Ferrandeko, Varsoviako, Malagako, ZINEBIko, Xixoneko, ALCINEko, Abycineko, Manchesterreko edo Sitgeseko jaialdietan, besteak beste.

2020an estreinatu zuen bere lehen film luzea, 'Ane', Donostia Zinemaldiko New Directors sailean. Filmak hiru Goya sari, Feroz sari bat eta Forque sari bat irabazi zituen, eta Varsovia, Shanghai edo Habana bezalako jaialdietatik igaro zen.

Sañudo Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea da, eta unibertsitateko irakaslea da zinema-gidoian eta fikzio-errealizazioan.

Martin dibortziatutako gizona da eta seme bat dauka. Kosmetikoen fabrika batean lan egiten du. Bere irudia eta gorputza modu maniatikoan zaintzen ditu eta bakarrik

sentitzen da. Etsita, bikotea aurkitzen laguntzen dion sedukzio-tailer bateko kide da. Egun batean Marta ezagutuko du eta berarekin ligatzea bere helburu nagusia izango da. Nacho Sánchezek, Álvaro Cervantesek, Usue Álvarezek, Gastón Haagek, María Cerezuelak eta Javier Fuentek osatzen dute aktore- zerrenda.

DEADLY DRAW (SORTEO MORTAL)

Nitya Lopez Saitua (Ibarrangelu, 1996) zinegilearen lehen film laburra da hau Kimuak katalogoan, kamera atzean eskarmentu handia badu ere.

Besteak beste, 'Ane' (David Pérez Sañudo), 'Ilargi guztiak' (Igor Legarreta), 'El buen patrón' (Fernando León de Aranoa), 'Maixabel' (Iciar Bollaín), 'La fortuna' (Alejandro Amenabar) eta 'Balenciaga' (Jose Mari Goenaga, Jon Garaño eta Aitor Arregi) produkzioetan zuzendaritza sailean lan egin du. Gainera, film labur, publizitate-iragarki eta bideoklip askotan parte hartu du, zuzendari laguntzaile gisa.

Gidoilari eta zuzendari lanak ere egin ditu, 2018an 'Jesus is B(l)ack' izeneko fikziozko lehen film laburra egin zuen, eta 2019an 'Infraganti' zuzendu zuen. 2021ean 'Txoriak txori' film laburra zuzendu zuen, gaur egun banaketa prozesuan dagoena eta orain arte 15 hautaketa jaso dituen. 'Deadly draw' (Sorteo Mortal), La Córnea Digital Bilboko ekoiztetxe sortu berriaren lehen film laburra da.

Usue Alvarez eta Urko Olazabal dira protagonistak zuri-beltzean egindako laburrean. Filmak 50eko hamarkadako zinema beltzaren klasikoak omentzea du helburu.

Carolinek kalea begiratzen du leihotik, aurpegia argitzen dion tximistak ekaitza iragartzen du. Atean giltza batzuk entzutean ikaratu egiten da; Nathan da, bere senarra. Bere eskuetara loteria-txartel bat iritsi da, istripu tragiko bat izan duen neska batena zena. Biek eztabaidatzen dute saria trukatzea etikoa den ala ez, baina badago zerbait bere ahotsen soinuan koadratzen ez duena.

XIMINOA

Itziar Leemans (Donibane Lohizune, 1983) zinegilearen lan berria da 'Ximinoa'. Senpereko Gastibeltza Filmak eta Bilboko Al Borde Films etxeen arteko koprodukzioa da.

Itziar Leemans Habanako Nazioarteko Zinema Eskolan graduatu zen 2012an. 2015ean eta 2020an, Kubari buruzko bi dokumental luze zuzendu zituen, 'Parque Lenin' eta 'Boca Ciega'. 2018an, 'Bainera' fikziozko film laburra egin zuen, eta 2022an 'Olatuak', bere hirugarren dokumental luzea zuzendu zuen. Fikziozko lehen film luzea idazten ari da gaur egun, 'Agurra'. 2019an, NOKA emakume zinemagileentzako mentoretza programan hautatua izan zen.

Euskaraz eta frantsesez egindako fikziozko lan honetan, Junek, udako lehen lana aurkitu du. Constance zaintzen du, maitasun eskasez den neskato sentikorra. Junek laster mantsotzen du haurra eta Elisabethen, bere amaren, konfiantza lortzen du. Junek familia berria atzeman izanaren ilusioa du, baina, lehen okerrean, etxeke langile estatutura itzularazten dute. Klase harremanen bortizkeria eta bere identitatearen ukapena aurkituko ditu. Ainara Leemans, Anaïs Villiot Chantelauze eta Sarah Chantelauze dira protagonistak.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus